

## KONTROL MOZIOA

### **Kontsultak egitea dela eta, donostiarren eskaerei ez erantzutearen ingurukoa**

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko apirilaren 8an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

Hilabeteetako lanaren ondorioz 2016ko martxoan Udalak 9.000 herritarren sinadurak jaso zituen, eskaera zehatza izenpetzen zutenak: donostiarrei galdetzea ea egoki iruditzen zaien udal instalazioak zezenketarako erabiltzea. 2017ko apirilaren 27an Donostiako Udalbatzak honako erabaki hau hartu zuen: *“Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Udal-gobernuari eta alkateari, ia 9.000 donostiarrek egindako eskaerari erantzunez, azter eta martxan jar dezala, 2017a amaitu baino lehen, udal instalazioak zezenketetarako erabiltzearen inguruan iritzia-jasotze legezko bat, 2012ko Zestoako eredu, 2017ko Arroka eredu edo bestelakoa izan daitekeena.”*

Hala ere Udal Gobernuak ez du agindua bete eta 8.986 donostiarren eskaera, donostiar ororen iritzia jasotzeari dagokionez, bete gabe darraio. Herri Kontsultak egiteko izan diren oztopoak alde batera utzita, eredu eta bide gehiago zeuden eta daude, aginduak berak aipatzen duen moduan.

Udal Gobernuak ez du bete 2017ko apirilaren 27an Udalbatzak hartu zuen erabakia agintzen ziona eta hilabete honetako batzordean interpelazioa aurkeztu genion Alkate jaunari, hurrengo egunean idatziz erantzun zuena. Bere esku dagoen guztia egin duela dio, bai eta egiteko asmoari eusten diola. Baina 2019ko apirilean gaudenez eta inongo eredurik aurrera eramateko pausurik eman ez duenez kosta egiten da aurreikustea asmoa zertan gauzatuko duen; are eta gehiago ikusi dugunean, Uliako Hazitegien parkea babesteari buruzko kontsulta Hiriko Gizarte Kontseiluak 2016ko apirilaren 21ean onetsi zuena bertan behera utzi zuela; edo donostiarrek bideratuta, Topoari buruzko kontsultari dagokionez, beste administrazio bati dagokion arren, azalpenak edo erraztasunak emateko ardura minimorik ere hartu ez duela; edo egindako prozesuetan hartu diren erabakiak (Blas de Otero, Arria parkea,... adibidez) ez dituela errespetatu. Horretaz Arroko pilotalekuari zegokiona salbuespena ote zen ala benetan etorkizuneko apustua galdetzea ere zilegi bihurtu da. Zalantza izatea gogorra da partaidetza ereduetan eredugarri izan den hirian,

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

demokrazia zuzena egi bihurtzeko Araudi aurrerakoia izan duena eta lehenaldian hamaika prozesu parte hartzaile burutu dituen.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

**KONTROL MOZIOA:**

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, batetik, berretsi dezala demokrazia zuzenaren bidearekiko duen konpromisoa, eta, bestetik, aurkezteko zein bide edo mekanismo zehatz jarriko dituen martxan, egin edo egingo zaizkion eskaerei erantzuteko; eta dagoeneko jaso dituen kasuan kronograma zehaztuz.

Donostian, 2019ko apirilaren 11n

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia